

Erleak urtean zehar:

Neguan erlea jan eta lo egoten da, eta ez da atarian asko ikusten, eguzki ederrak jotzen ez badu. Neguko hotzen eraginez, asko hiltzen dira. Negu gogorretan eta ezti gutxiegi uzten zaienean erlauntz osoa desagertu daiteke.

Udaberri aldera erleen mugimendu handia hasten da. Hanketan polen-pilota horiak nabarmentzen dira, eta erlauntzetan dagoen sartu-irtena handia da. Erreginak arrautzak jartzen ditu, eta **uda** hastean erlauntz ertain batean 39.000 langile eta 1.900 erlamando izan daitezke. Erlekume gehienak maiatzetik eta ekainetik jaiotzen dira.

Erle erreginak ***errun** dituen arrautzetatik jaiotzen diren erletxoak larba zuriak dira, hegorik eta hankarik gabeak eta buru txiki-txikia dutenak.

Udazkenean, erleek gero eta lan gutxiago egiten dute. Egunak laburragoak dira eta gauak freskoagoak. Goizetan ere, beraz, beranduago ekiten diote lanari.

1.-Nola egoten da erlea neguan?

2.-Neguan asko hiltzen dira?

Bai

Ez

3.-Noiz jaiotzen dira gehienak?

4.-Ze koloretakoak dira larbak?

5.-Udazkenean lan asko egiten dute?

Bai

Ez